



Arartekoaren 2018S-1780-17 Ebazpena, 2018ko ekainaren 13koa. Bertan, Gasteizko Udalari, dagokion instalazioetan praktikatzen den eskolako kirola beti hezkuntza-parametroen pean burutu dadila aholkatzen zaio.

Aurrekariak

1. Espediente bat ireki da erakunde honetan 8 eta 10 urteko bi umeren amak hala eskatuta. Haur horiek jokatzeko duten Lakua futbol taldeak Gasteizko Udalaren Lakua Arriagako instalazio publikoak erabiltzen ditu. Kexagileak dioenez, klub horrek adingabeen familiei jakinarazi zien, denboraldi honetan, haur guztiek ez zutelara parte hartuko txapelketetan, batzuk bai eta beste batzuk ez, entrenatzaileak hartzen duen erabakiaren arabera. Kexagileak erabaki hori salatu zuenean, zuzendaritzaren erabaki bat zela jakinarazi zitzaion.

Kexagileak kexa bat aurkeztu du hain gazteak diren haurrek kirola egiteko duten helburuaren kontra jotzen duelako erabaki horrek, parte-hartzea lehiakortasun-irizpideen mende uzten baitu, hezkuntza mailako irizpidea nagusitu beharrean. Politika hori ez datorrela bat eskolako kirolaren programaren araudi erregulatuak ezartzen dituen printzipioekin zioen, izan ere, horrekin, hezkuntza helburuak lortzeko edo haur eta gazteen artean kirolerako ohitura sustatzeko baina, lehia-arrakastari ematen baita lehenetsia. Honegatik guztiagatik, printzipio horiek ziurtatzeko, Gasteizko Udalak, aipaturiko programaren barruan, era honetako praktikak udalaren kirol instalazioetan gauzatzen dituzten klubak kontrol handiagoa eraman behar lukeela uste du.

2. Arartekoak kasu honen informazioa eskatu zion Gasteizko Udalari eta honek bere Kirol Zerbitzuaren txostenarekin honakoa erantzun zion:
 - Udalak ez du eskola adineko adingabeentzat izaera lehiakorrek jarduerarik antolatzen, ez eta lehiaketetan parte hartzeko talderik diruz laguntzen ere adin hauetan. Egiten duena zera da, udal instalazioak utzi hala eskatzen duten eta eskola-programetan parte hartzen duten ikastetxe edo erakundeak, betiere, instalazio hauek arautzen dituen foru araudiaren baldintzen arabera. Hori dela eta, jarduera hauek nola burutzen direnaren kontrola antolatzen dituen erakundearen esku dagoela ulertzen du: Alde batetik, ikastetxeak beraiek eta euren IGEak; bestetik, gaitutako kirol-erakundeak eta dagozkien federazioak; azkenik, eskola kirola arautzen duen foru-araudiak aipatzen dituen foru organoak eta erakunde laguntzaileak.
 - Bazkideek berretsi behar dituzten klub bakoitzaren erabakiak, administrazioen esku-hartzerik gabe eta norbanakoak askatasunez erabakiko du bazkide egin ala ez bere irizpidearen arabera.





- Azken urteetan, ikastetxeetako IGEen parte-hartzea txikiagoa izateak, eskolako kirolean klubek protagonismo handiagoa izatea ekarri du. Azken ohar honen harira, Kiroleko Udal Zerbitzuak honakoa adierazten du:

A pesar de lo señalado, esta participación de los Clubes y el peso de las Federaciones en la estructura, no está produciendo los efectos esperados. Al contrario, se está utilizando el acceso al deporte escolar como fuente de captación de ingresos a la vez que puede deteriorar el fundamento de nuestro deporte escolar. Es por ello, que este Servicio de Deporte, viene alertando al órgano Foral y mantiene contacto con el fin de introducir cambios.

Este Servicio, entiende que se deben de tomar medidas a favor de continuar con los preceptos que informan del modelo de deporte Escolar y los cuales este Servicio defiende. Pero, al mismo tiempo, las Administraciones Locales actuamos bajo los Principios de Coordinación, Descentralización, Lealtad institucional y Legalidad, y por tanto no podemos dejar de reconocer lo que las Administraciones competentes reconocen.

Udalak kexak aipatzen zuen kirol erakundearen jokabidea aztertzeko bere jarrera irekia agertuz bukatzen zuen. Horrez gain, eskolako kirolen programak betetzearen ardura duenez gero, Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak auzi honen berri izan beharko lukeela azpimarratzen zuen. Hau guztia, tokiko administrazioek jardun behar duten koordinazio, deszentralizazio, erakundeekiko leialtasun eta legezketasun printzipioen mesedetan.

Aurrekari hauek ikusita, Arartekoari egoki iruditu zaio Gasteizko Udalari honako hau helaraztea:

Gogoetak

1. Erakunde honek behin baino gehiagotan jo du botere publikoetara haietako bakoitzak berma dezan (beraien eskumenen esparruan) hurrek eta nerabeek egindako kirola, une eta testuinguru guztietan, hezkuntza mailako parametroak errespetatuz praktikatzea. Udalaren eskumenei dagokienez, Arartekoaren otsailaren 16ko gomendio orokorra da berriena. Haren edukia hain gazteak diren hurrek praktikatutako kirolean hautemandako arazoetatik sortu bada ere, haren oinarriak eskolako kirolaren esparruko jardueretan ere esanguratsuak dira.

Auzi honen aurrean udalak izan beharko lukeen jokabideari dagokionez, Gasteizko Udalak Arartekoari emandako erantzunetik abiatu beharko luke egiaztatzeraz, Arartekoak zentzu bikoitzean eskatu baitzion bere laguntza:





- Batetik, erakunde honi kexagileak bere kexan adierazten zuenaren balorazio zehatza bidaliz.
 - Bestetik, hartu zituen edo hartzeko asmoa zuen neurriei buruzko informazioa eskatu zitzaion, Arartekoaren gomendio orokor hori aplikatuz; hala, udal horrek kirol klubei emango lieken babesa (instalazioak utziz, diru-laguntzak edo sustapenerako laguntzak emanez) baldintza honen mende geratuko litzateke: eskolako kirolako programaren jardueretako taldeetan parte hartzen duten haurrek hezkuntza eta partaidetzako irizpideen arabera jokatu beharko lukete eta ez lehia irizpideen arabera.
2. Bi aspektu hauetatik lehenaren kasuan, kontuan hartu behar da kexagileak aipatu dituen gertaerak baieztatuko balira, klubek eskolako kirolen programan parte hartzeko baldintzak zehazten dituen araudiak dioenarekin ez direla bateragarriak, bereziki, balioen formazioa bermatzeari lehentasuna eman behar zaiola dioenarekin.

Puntu honetan, egokia da Arartekoak jada bere urriaren 27ko 6/2011 Gomendio Orokorrean honi buruz aipatzen zuena gogora ekartzea:

3.1. Argi dago kirolak berezko indarra duela ahalegina, norbera gainditzea, frustrazioarekiko erresistentzia, autodiziplina, lankidetzeta eta lan taldea, ezberdina/kontrakoarekiko errespetu baloreak, solidaritatea, etab. Bezalako gaitasunak garatzeko. Indar horren garapenari hezkuntzaren ikuspegitik aurre egitean, bestalde, entrenatzaileek gure haurren eguneroko autoezagutze, ikaste eta madurazio prozesuaren "laguntzaile, bultzatzaile eta orientatzaile" gisa duten papera azpimarratzen da. (...)

3.2. Gehienek onartzen dute, eta horrela xedatzen dute arau eta politika publikoek, adin horietako kirol jardueraren helburuak hezkuntza duela oinarri. Kirol diziplina jakin baten trebetasun edota gaitasun teknikoak ikasi eta garatzea baino harago doa haurren erabateko hezkuntza osatzeko, norberaren eta gizartearen garapen osasungarria lortzeko balore positiboek hezkuntzan barneratuz. Horrek esan nahi du kirol jardueran bertan barneratzen dela hezkuntza aldagaia; gure haur eta nerabeen erabateko hezkuntza bultzatzen duten jarraibideak eguneroko eta ohiko jarduera bideratzeko, zuzentzeko eta orientatzeko moduan gaineratzen dira; balore positibo horiekin eta horien bidez garatutako kirol jardueraren bizipena aurrera eramanez bihurtuko dira gure adingabeen gaitasunen parte.

Euskal Autonomia Erkidegoan kirola arautzen duen araudiak joera hau bildu eta lehenesten du, emaitzen eta lehiakortasunaren gainetik. Horrela, Euskadiko kirolari dagokion uztailaren 11ko 14/1998 Legearen V. Titulua kirol-sistema guztien euskarrietako bat bezala definitzen duenari buruz mintzo da: eskolako kirola. Honen funtzioa nagusiki heziketakoa dela nabarmentzen du, hitzurrean ere adierazten duen gisan "Kirola garrantzitsua da eskolako ikasleen heziketa





osorako, nortasunaren garapen harmonikorako eta baldintza fisiko eta prestakuntza egokiak lortzeko, gerora begira ere kirola egiten jarraitu ahal izan dadin.”

Kirolaren Euskal Planean (2003-2007) ere halaxe jasotzen du. Bertan, eskolako kirolaren lehen helburu gisa “jarduera egiten duen haurren hezkuntza garapenaosatzea eta aldi berean kirolari bakoitzaren banakako beharrak asetzea” zehazten da, aipaturiko legean dagoeneko adierazitakoaren osagarri gisa nabarmenduz: 1) berdintasun, diskriminazio eza eta estereotipoen gainditze baldintzetan partaidetza sozialari emandako berariazko ekarpena, 2) kirol jardueren sustapena bideratzea, bizimodu osasungarrien garapena ahalbidetuko dutenak, lehiakortasunarekin zuzeneko loturarik izan gabe.

Bestalde, otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babesteari buruzkoak, *“Hurrek eta nerabeek eskubidea dute kirolak eta jarduera fisikoak egiteko, eta saihestu egin behar da jarduera horietan lehiakortasuna lehenbiziko balioztat sustatzea. Lehiaketa-kiroletan parte hartzea borondatezkoa izan beharko da, beti, eta entrenamendu plan eta metodoek errespetatu egin beharko dituzte haien egoera fisikoa eta hezkuntza-beharrizanak (34.3 art.)”* adierazten du eta bertako 35. artikulua, beraien eskumenen esparruan administrazio publikoek sustatu beharreko printzipioen artean, kirol eta aisialdiko jardueretan parte hartzeko printzipioa nabarmentzen du, izan eskolako ingurunean nahiz komunitatekoan.

Azkenik, uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua aipatu behar dugu, eskolako kirolari buruzkoa, eta honek dioenez *“Hurrek eta nerabeek eskubidea dute kirolak eta jarduera fisikoak egiteko, eta saihestu egin behar da jarduera horietan lehiakortasuna lehenbiziko balioztat sustatzea”*. Ideia hau abiapuntu hartuta, Dekretuak honakoa dio:

Eskolako kirolaren helburu nagusia haur kirol-egilearen hezkuntza-garapenaosatzea izango da, bai eta kirolari bakoitzaren banakako beharrizanak asebetetzea ere. Hala, eskolako kirolak haurren heziketa integrala bilatuko du, beren sarbidea eta parte hartzea bermatuz berdintasunez eta sexu-estereotipo eta roletatik kanpo; haurren nortasuna era armoniatsuan garatzea bilatuko du, bai eta geroko adinetan ere kirola modu jarraituan egin ahal izatea eta bizimodu osasuntsua eramatea bermatuko duten baldintza fisiko eta kirol ohitura batzuk eskuratzea ere.

Eskola garaia da kirol praktikari ekiteko adin egokiena, garai horretako kirola haurren heziketaren osagai berezkozat hartu behar baita, balio positiboak transmititzeko bidetzat eta geroko kirol praktikaren bermetzat.

Dena dela, udalaren erantzunak ez lituzke oinarri bezala arau hauek soilik hartu behar, baizik eta kexaren benetako oinarria hartu behar luke abiapuntu. Aurrekarietan adierazten den gisan, Udalaren Kirol Zerbitzua hau aurrera eramateko prest dago eta Arartekoari honi buruzko xehetasunak bidaltzeko



eskatu dio. Hala egin du erakunde honek, eta hargatik aholkatuko dio udalari, bidalitako informazioaren berri izanda, ebazpen honetako Lehen Aurrekarian jaso diren gertaerak egiaztatzeko.

3. Azaldutako bigarren puntua, adierazi bezala, Gasteizko Udalak gai honen inguruan hartu dituen edo hartzeko asmoa duen neurriei buruzkoa da.

Honi dagokionez ere esanguratsua da Udalaren Kirol Zerbitzuak emandako erantzuna, indarrean dagoen eskolako kirolaren eredia iradoki zuten printzipioak babesteaz gain, beraren aldeko neurriak hartzeaz mintzo baita. Izan ere, dioenez, federazioak eta kirol klubak bere egituraren hartzen ari diren garrantzia dela eta bere oinarria kili-kolo ikustera iritsi da.

Honenbestez, nabarmena da, kezkarriaz gain, norabide honek udaleko kirolaren arduradunak eredu hau ez dela espero den emaitzak ematen ari pentsatzera eramatea. Pentsa zenbateraino, Arartekoari emandako erantzunean eskolako kirola diru-sarrerak lortzeko bitarteko gisa erabiltzen dela baieztatzen eta azkenean puntu hauek guztiak gure eskolako kirolaren oinarria hondatu dezaketela esatera iritsi baita.

Honengatik guztiagatik, erakunde honek ezin du bat etorri udalak adierazi dion puntuetako batekin, alegia, klub bateko bazkideak gai honi buruz iruditzen zaien erabakiak hartzeko askeak direla dioen puntuarekin hain zuzen, administrazioen esku-hartzerik gabe eta bakoitzaren irizpidearen arabera, norbanakoak bazkide egin ala ez erabakitzeke duen askatasuna ez beste mugarik. Izan ere, gure administrazioek ezin dituzte kontuan hartu gabe utzi erabaki horiek, eta are gutxiago erabaki horiek sor ditzaketen ondorioak, klubak izaera publikoko instalazioak erabili behar dituztenean, eskolako kirolaren programan parte hartzeko esparruan: ahal den guztietan, praktika hori programak zehazten dituen printzipioak errespetatuz burutu beharko da. Era berean, bere arau izaerak balizko jokamolde okerrak prebenitu eta zuzentzen behartzen ditu botere publikoak.

Udala bera, Arartekoari emandako erantzunean, honi dagokionez neurriak hartzearen aldekoa da. Horrek, erakunde honek espresuki aitortu nahi duen lankidetzarako borondatea erakusten du eta botere publiko guztiak bultzatzen ditu irmoki eta koordinatuta aritzera, bakoitza bere ahalmenen neurrian, joera hau leheneratzeko helburuarekin.

4. Gasteizko Udalak esparru honetan egin ahalko lukeenaren inguruan, Arartekoari Euskadiko udal guztiei aholkaturikoak balioko luke, alegia, beraien udalerriko klubei ematen zaien laguntza, izan instalazioak utziz, laguntza ekonomikoa edo sustapenekoak, arlo honi dagozkion lege aurreikuspenen baldintzapekoa izatea. Erakunde honen ustez, kirol zentroek eta klubek zentzu horretan praktika onen kode bat sinatzea norabide zuzenean doan urratsa da.





Ezin da ahaztu testuinguru honetan, foru agintariei dagokiela alor honetako ikuskapen eta kontrolak burutzea, ikastetxeek eta kirol klubek eskolako kirolaren programako jarduerak burutzean, zentzua ematen dioten printzipioekin egin dezaten. Hala dio araudiak, eta hori betez, era berean, egokia da Gasteizko Udalaren gogoeta Arabako Foru Aldundiak auziaren berri izatea komeni dela dionean. Hau guztia, hartzen diren neurriak Arartekoari eman beharreko erantzunaren aldekoak izateko helburuarekin, Aurrekarietan adierazi bezala, tokiko euskal administrazioen jarduerak arautzen dituzten koordinazio, deszentralizazio, erakundeekiko leialtasun eta legezketasun printzipioekin bat etorruta.

Hargatik erakunde honek foru erakundera joko du eta Gasteizko Udalari egingo dizkion iradokizunen berri emango dio. Horrekin batera, arlo honetan esleituta dituen eskuduntzei dagozkien neurriak hartu ditzan bultzatuko du, udaleko agintariekin koordinatuta.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau egin da:

IRADOKIZUNA

Gasteizko Udalak Arartekoari kexa honen nondik norakoak ulertzeko eskainitako lankidetzara eta foru agintariekin koordinatzeko hartu beharreko neurriak hartzeko daukan aldeko jarrera ikusita honakoa gomendatzen dio Gasteizko Udalari:

1. Egiazta dezala kexak aipatzen duen klubean denboraldi honetan eskolako kiroleko txapelketetan izena eman duten adingabekoen parte-hartzea eta ikusi ea hezkuntza printzipioetan eta ez lehiakorretan oinarritu diren ala kirol errendimenduaren ikuspuntuak baldintzatu dituen, izan zuzendaritzaren erabakietan zein entrenatzaileek burututako praktketan.
2. Hemendik aurrera, eskolako kirola dagokion araudia errespetatuz gauzatu dadin, ikastetxeei eta kirol erakundeei udal instalazioak uzteko praktika konpromiso baten baldintzapean egin dadila, alegia, parte-hartzean eta hezkuntzan oinarritutako kirol praktika izan dadila haurrentzat.

